

ERRESISTENTZIA PROZESUEN ALDERDI MATERIALAK IRAGAN HURBILEAN: Afrika eta Amerikako kasuen arteko konparazioa.



Ikaslea: Ainhoa Garcés Romeo.

Gradua: Historia.

Ikasturtea: 2020-2021.

Tutorea: Sergio Escribano Ruiz.

Graduko jakintza-arloa: Geografia, historiaurrea eta arkeologia saila.

LABURPENA

Erresistentziaren arkeologia azken hamarkadetan lantzen hasi izan den arloa da, definitzeko orduan hainbat galdera sortarazten dituena eta honen mugak ipintzen zailtasunak eragiten dituena. Honen ondorioz, hainbat kasuetan oinarrituz definizio osoago eta praktikoago bat osatzen saiatuko gara, esklabuen edota tokian tokiko kolonizatuen historia ikertuz arkeologiaren bidez. Arkeologiak historiatic at geratu ohi diren pertsona horien kontakizuna zabaltzeko aukera ematen digun tresna dela kontuan hartuz, kasu honetan ere, ixildutakoen historia hori ezagutzera emateko erabilgarria izan da. Gure kasuan, Amerikako eta Afrikako erresistentzia kasu desberdinak (ihes egindako esklabuen egoera, kolonizatazaileen aurkako guduen ikerketak edota errituen eta kolonialismoaren aurkako borrokaren arteko loturak, besteak beste) ikertuko ditugu.

Lanaren eskemari dagokionez, hasierako zatian botere-harremanei buruzko kontzeptu batzuk argituko ditugu, oraindik ere ezagutzera eman behar den ikerketa arlo baten aurrean aurkitzen baigara. Errepresio sistema baten aurrean zer nolako egoera aurkitzen den azalduko dugu, diskurtso motak bereiziz eta hauen arteko ezaugarri orokorrak emanez. Kontzeptuak argiago izatean, kasuen aukeraketaren nondik norakoak laburki adieraziko ditugu. Honen ostean kasuen deskribapenarekin hasiko gara, haien arteko loturak eginez, kasuen arteko kohesio bat mantentzeko. Deskribapenen ostean konparazio bat egingen dugu gure hausnarketan zehar, hainbat arlo konparatuz: hasieran esklabuen erresistentziaren nondik norakoak, ostean, *Maroons*-en kasu zehatzagoa, eta azkenik hausnarketa errepresentatiboago bat, non beste kasu edo ideia batzuk adieraziko ditugun. Azkenik, eta lana amaitzeko, ondorio batzuk emango ditugu, lana egiterako prozesuaren nahiz lanean berean emandako ideietan oinarriturik izandako ideiak plazaratuz.

Lan honen helburu nagusia hasieran aipaturiko zailtasun eta galdera horiek argitzea eta erresistentzia beraren nahiz honen arkeologia arloari buruzko ideiak errazago ulertzea lirateke. Hortaz gain, arkeologiaren beraren helburua bete nahiko luke: historiografia ofizial edo kontakizun tradizionaletik kanpo geratu direnen historia kontatzeko tresna izatea, askotan aurkitzen ditugularik alde batera utzitako giza talde

osoak. Gaur egunean aldatzen dihoan korronea jarraituz, pertsona horien nondik norakoak azaldu nahiko genituzke.

HITZ GAKOAK: Arkeologia, erresistentzia, esklabutza, botere-harremanak, menperakuntza, kolonialismoa.

AURKIBIDEA

1. SARRERA	5
2. MARKO TEORIKOA ETA METODOLOGIA	6
2.1.DEFINIZIOA, ZER DA ERRESISTENTZIA?	6
2.2. NOLA AURKITU DITZAZKEGU AZTARNA HORIEK?	10
2.3. KASUEN AUKERAKETA	11
3. ERABILITAKO KASUEN DESKRIBAPENA	11
3.1. AMERIKA	11
3.1.1.TXILE	11
3.1.2. BRASIL	13
3.1.3. KARIBE ZONALDEA	14
3.2. AFRIKA	17
3.2.1.TANZANIA	17
4. INTERPRETAZIO KONPARATIBOA	22
4.1.ESKLABUEN ERRESISTENTZIA	22
4.2. MAROONS-EN KASUA	23
4.3. HAUSNARKETA OROKORRA	25
5. ONDORIOAK	27
6. BIBLIOGRAFIA	30

1. SARRERA

Arkeologian barnean, beste giza-zientzietan bezala, azkeneko hamarkadan eta globalizazio nahiz neoliberalismoarekin loturik, ikerketa arlo berri bat eman da: erresistentzia. Erresistentziaren nondik norakoak, botere harremanak, gizarte bertikal edo horizontalak, diskurtsoen banaketak... landu izan dira. Hasieran, marxismoaren testuinguruan, menperatu eta botere nagusiaren arteko konfrontazio moduan definitu izan zen, baina gero eta kontzeptu konplexuagoa bilakatzen hasi zen, eta nahiz eta oraindik landu beharreko ezagutza arloa den, baditugu hainbat ikerketa horren inguruan, suertatzen diren arazo kontzeptual horiek ebazten saiatzen direnak.

Resistance is a popular topic in anthropology and archaeology rooted in widespread concern about globalization and neoliberalism (Milesi *et.al.* 2019:1).

Lan honetan kolonialismoa ardatz moduan hartzen badugu ere, eurozentrismoa alde batera uzten saiatuko gara, askotan historia europear zurien gizarteetan oinarritu delako, jakintzaren berezko monopolioa izaten dutelako, beste etniak alde batera edo menperaturik utziz (Miller *et.al.*1995: 22-23.). Kolonialismoaren beste aurpegi hori azaltzen saiatuko gara, lege eboluzionista arrazista horien kontra egin eta europearren errepresioaren aurka altxatu zirenen kontakizuna hobeto ulertzen saiatuko garelarik. Historiatik at geratu direnen kontakizuna ezagunagoa izateko erabiliko dugu arkeologia.

Erresistentzia, boterea, hauen arteko harremanak gizartean... azkeneko hamarkadetan lantzen hasi diren gaiak izan dira arkeologiaren baitan. Erresistentzia prozesu horiek hobetu ulertzeko hainbat metodologia erabili izan dira, ikuspegi teoriko desberdinak erabiliz, arlo asko hartzen dituztelarik. Hurrengo lanean horiek azaltzen saiatuko gara, hainbat adibide erabiliz, batez ere europearren kolonialismoa aintzat hartuta, kontinente desberdinetan eman ziren erresistentzia prozesu horiek nola landu diren azalduko dugu.

Honekin lotuz, lanaren antolaketa azalduko genuke: hasieran kontzeptu orokorreari buruzko definizioak azalduko ditugu, teoria hobeto uler dezagun, ostean

erabiliko dugun metodologia azalduko dugu, honetan oinarrituz hainbat kasu deskribatuko ditugu, eta hauen konparaketa eta hausnarketa bat eginez amaituko dugu.

2. MARKO TEORIKOA ETA METODOLOGIA

2.1.DEFINIZIOA, ZER DA ERRESISTENTZIA?

Hasteko, definizio argi bat eman beharko genuke. Baina hemen dator lehen arazoa, berez guztiok ezagutzen dugun hitza den arren, ez da erraza mugak ipintzea, eta kasu askotan, ez dago oso argi noiz hasten den erresistentzia eta non amaitu. Adibide bat jartzearen, eta gure inguruko historia erabiltzearen, Espainiako gerra zibila ipini dezakegu, non, hasieran behintzat, botere nagusia gobernu errepublikarrak zeukan, haiek zeukatelako estatuaren berezko kontrola, edo teorian behintzat hala izan beharko luke, eta erresistentzia, aldiz, altxatutako nazionalistak. Baina gerrak aurrera egin ahala eta botere horiek aldatzen zijoazela, gure erresistentziaren protagonistak aldatzen ditugu, errepublikarrak ipiniz multzo horretan, gaur egunera arte mantendu den irudikapenarekin, non errepublikaren defendatze hori borrokatu zutenei lotzen diegun erresistentziaren papera. Zer ezaugarri eman behar dira botere nagusi horren aldaketa emateko? Zer da orduan erresistentzia?

Berez erresistentzia menperatuek daukaten boterearen aurkako ekintza moduan ikusi dezakegu, lehen aipatu dugun Marxisten definizioa erabiliz, baina boterearekiko daukan lotura horrek zailtzen du egoki definitzea. Boteredun eta menpekoen arteko harremanak oso konplexuak dira, eta askotan, uste baino gorabehera handiagoak dituzte. Berez, gizarte oso batek osatzen dituen adina ezaugarri eta berezitasun izan ditzazke erresistentziak, erlijioa, politika, kanpo-harremanak, botere-harremanak... Hasieran uste zen goitik beherako harreman hori alde batera utzi behar dugu oraingoan, berez den kontzeptu abstraktoago eta konplexuagoa dela onartuz.

Beste bi kontzeptu argitu beharko genituzke, erresistentziaren nondik norakoak hobeto ulertzeko: **diskurtso publiko eta ezkutukoa**. Esklabutza edota menperatze sozial baten barruan aurkitzen garenean, bi talde sozial aurkitzen ditugu, menperatzaileak eta menperatuak, eta haien arteko harreman momentuak, diskurtso

publikoan sartuko genituzke, non botere-harremana errespetatzen den. Aldiz, zonalde seguru eta ezkutuko baten heinean aurkitzen direnean, bai menperatu nola menperatzaileek, haien diskurtso ezkutukoa izaten dute. Publikoa, adibidez, landa eremuetako jabearen aurrean erreberentzia bat egitea, edo esaneko izatea izan daitezke. Askotan menpeko jarrera hauek, gurasoek seme-alabei erakusten dizkiete, bizirauteko praktika moduan, jabe edo kolonizatzaileei men eginez, arazo gutxiago lortuko baitituztela pentsa litekelako. Menperatzaileen kasuan, diskurtso publikoa errespetagarria izatea, espero dutena betetzea edota ordena mantentzea izango lirateke. Ezkutuan, aldiz, haien egoerari buruzko keak, nazka eta haserrea aurkitu ditzazkegu. Menperatuen partetik egoten zen jabe edo kolonizatzaileen aurkako gorrotoa testuinguru hauetan zabaltzen eta ematen da, menpekoen artean aski ezagunak zirenak, baina ez dira alderdi publikora eramaten, hain zuzen ere bizi daiteken zigorraren beldur, errepresio handiko egoera batean aurkitzen direlako gehienetan. Hori litzatekelarik desberdintasun nagusia, izan ere, menperatzaileek, nolabaitean diskurtso publikoan baitan haien papera betetzen ez badute, ez dutelako lotsa baino erantzun larriagorik izango, menperatuek aldiz, zigor fisikoak edota heriotza izan dezakete diskurtso publikoan boterearekiko errespetu hori izaten ez badute.

**Espacios discursivos hipotéticos,
ordenados según el receptor, durante la esclavitud**

<p>Amo o mayordomo cruel Amo o mayordomo indulgente Blancos sin autoridad directa</p>	<p>]</p>	<p>Discursos públicos</p>
<p>Esclavos y negros liberados Esclavos del mismo amo Amigos más cercanos del esclavo Familia inmediata</p>	<p>]</p>	<p>Discursos ocultos</p>

1. irudia: diskurtso hipotetikoaren banaketa, hartzailearen arabera egindakoa, esklabotzaren testuinguruan (Scott, 1990: 54).

Gordeko diskurtso honen analisisian oinarritzen da menperatuen historia. Ixilduen eta ahaztutakoen historia horren berri izatea, baina, ez da gauza erraza, hain zuzen ere diskurtso ezkutu hori ezagutu behar delako, askotan diskurtso publikora atera zirenak kasuak hartzen ditugularik (nahiz eta gehiengoak diskurtso ezkutu moduan mantentzen

duen). Adibide moduan, George Elioten *Adam Bede* eleberrian aurkitzen dugun Poyser anderea izango genuke, zeina esklabu beltza den arren, jabearen aurka egiten duen pentsatzen zituen ideia guztiak kontraziz, haren diskurtso ezkutua alderdi publikorantz eramanez, jabearen aurka zituen pentsamendu guztiak bere aurrean esanez, haien etxearen alokairua igo nahi diola esaten dionean (Scott,1990: 29). Lehen aipatu dugun moduan, salbuespenak diren arren, menpekoen lehertze kasu hauek erabili ditzazkegu diskurtso ezkutu eta sekretu horiek hobetu ulertzeko. Beste aukera bat zonalde seguru horretan murgiltzea litzateke, baina kasu askotan diskurtso ezkutuen bakoitzak bere buruan dituen ideiak dira, non segurtasun guztiarekin pentsatu daitezkeen, inolako errepresiorik bizi gabe.

Baina kasu batzuetan, egoeraz nazka eginda ez daudenean ere ematen dira diskurtso hauen mugimenduak alderdi ezkututik publikora. Beste adibide bat George Orwell-en *Shooting an Elephant* saiakeran aurkitu dezakegu. Han Birmaniako koloniaren polizian ikuskariordea den Orwellen historia kontatzen da. Nolabait menperatzaileen presioa ere azalduaraziz, askotan, ingelesez aurkako ekintza pasibo eta ez hain larriak azaltzen dituelarik, eguneroko bizitza balira bezala. Ekintza hauek, birmaniarren diskurtso ezkutuen isla diren arren, ez dira nahikoa iraultza bat mugiarazteko, eta horren ondorioz, ingelesek eta haien botereek ez dute horren aurka ezer egiten. Saiakeran ere aipatzen du nolakoa den presio hori, menperatzaile izatearen paper hori bete behar dutelako, indartsuenak direla erakutsiz. Baina Orwellen kasuan, desberdintasun bat aipatu dezakegu, lehen azaldu duguna, menperatzaileek gehienez ere lotsa pasako dutelako indar nahikorik erakusten ez badute, demagun, haien presentzia eskatzen denean ekintza bat baretzeko eta hau lortzen ez badute; aldiz, esklabu beltzek edota kolonietan bizi diren birmaniarrek, heriotza edo jipoi batzuk jaso ditzazkete jabearen edo kolonizatzaileen aurka edota haien gustoko ez den zeozer egiten badute. Bakoitzak presio bat bizi du, baina batek ordaindu behar duen prezioa eta bestearena nahiko desberdinak dira. Desberdintasun horretan eta diskurtso ezkutuen bila burutuko dugu lana, europar zuriaren menperakuntza sistema desberdinetan eman ziren erresistentzia prozesuak azalduz (Scott,1990:35).

Botere harreman hauen baitan ematen diren tirabirak, erresistentzia moduan ikusiak, beste sailkatze bat osatzen dute: **erresistentzia aktiboa eta pasiboa**. Erresistentzia aktiboaren baitan iraultzak, borroka armatua eta ondo antolatutako

ekintzak sartuko genituzke. Pasiboen barnean, aldiz, uzten erretzeak, isekak, ihes egitea, boikota, etab. Erresistentzia mota honi dagokionez, autore askoren arabera, ekintza esporadiko eta bizitza laburrekoak dira:

Such 'individual acts of resistance' may have been extremely short-lived and sporadic (Charles et.al. 2001:63).

Orokorrean, eragin gutxi izango zuten ekintzak ziren, banaka burutu zitezkenak, eta jabearen errepresio bortitz bat eragingo ez zutenak, baina garrantzi handia izango zuena menperatuen ikuspegitik, ez zutelako betetzen agindutakoa, botereari nolabaiteko boikot-a egiten zutelako, kontrakoa eginez. Historiaren kontakizun ofizial eta ezagunenetan, erresistentzia aktiboa lantzen da, iraultzak, borroka armatuak eta matxinadak ikertzen direlarik, baina, kasu gehienetan, erresistentzia pasiboa izango da ohikoena, eta aktiboa, aldiz, gutxiengoa. Arkeologian ere, materialtasuna kontuan hartuz, erresistentzia aktibo horrek arrasto eta metaketa handiagoak uzten dituzte, aldiz, erresistentzia pasiboak duela gutxi arte ez zen uste izan arrasto materialik uzten zuela ere. Berez, pasiboen kasuan, zaila izaten da materialak aurkitzea, hortaz gain kronologia ezartzeko zailtasunak izaten dituzte eta baita haien egiazkotasuna baieztatzea ere, askotan manipulatuak izan daitezkelako, eta, ihes egindako esklabuen kasuan, adibidez, landa eremu bateko esklabu baten jabetza izan daiteke, ustez ihes egindako esklabu batena pentsatzen dena. Hala ere, hainbat salbuespen egon dira azkeneko hamarkadetan, uste zena baino arrasto gehiago aurkitu direlarik. Adibide moduan aipatuko genituzke afrikar kulturetako zeramiken arrastoak Portugalen (Casimiro et.al, 2019) edota Argentinako Paranako San Miguel ermitari buruzko ikerketak (Schávelzon, 2020), non arkitekturaren arkeologian analisi bat osatu behar izan zuten esklabuen eta afrikarren ondorengoaren egoeraren berri izateko.

Kultur elkartrukeen harira, ondoren sakonago landuko ditugunak, ezin dira argi mugatu afrikar beltzen kultur materiala eta non amerikar indigenena, haien arteko harremanaren ondorioz. Hala ere, haien eguneroko bizitza osatzen zituzten elementuak zirela argi ikusi dezakegu, eta nahiz eta zehazki zein talde etnikorekin lotzea zaila izan, material guzti hauen garrantzia oso handia da. Hain zuzen ere, haien ezaugarri nagusia gehienak material galkorrak izatea baita, eta, deposito horiek aurkitzea gutxitan ematen

direnez, historiaren pasarte ahaztu hori ondo ulertzeko altxor moduan ikusten dituzte ikerlari askok.

2.2. NOLA AURKITU DITZAZKEGU AZTARNA HORIEK?

Aipatzekoa da, erresistentzia pasiboaren adibide askotan, lehen esan dugun moduan, materialtasuna ez dela oso nabarmena. Depositu gehienak material galkorrez osaturik daude, eguneroko bizitzan erabiltzen dituztenak, eta haien kontserbatze egoera ez da egokiena. Gainera, kasu askotan klimaren egoera kontuan hartu beharko genuke, gero aipatuko ditugun adibideetako asko zonalde tropikal batean aurkitzen direlako, hezetasun maila handiekin, kontserbazioa zailduz.

Ikerketak hasterako orduan, beste zailtasun bati aurre egin behar izaten diote: asentamenduak ondo kokatzea, normalean izaten dituzten arrasto gutxiek. Kasu askotan, zundaketa txikiak burutzen dituzte, galdeketa sozialen erantzunak erabiliz, eta horien ondorioak egokiak badira, indusketak burutzen dituzte. Deposituak oso anitzak izaten dira (Zeramika zatiak, kristalezko botilak, erresistentzia prozesu desberdinen arrastoak, azazkalak, erretzeko pipak edota metalezko ontziak...) eta material guzti horiek gizarte horien adierazle izaten dira, ihes egindako esklabuen kasuan, gizarte aske eta kolonialismoaren sistematik at zeudenen aztarnak direlarik, ondoren sakonki ikertuko ditugunak. Gizarte horien islada izateaz gain, konparaketak eginez eta gizartearen analisiak burutuz, erresistentzia ekintzekin lotu daitezke eguneroko material hauek, askotan aurkitzen ditugularik indusketa desberdinetako konparaketak erresistentzia prozesu baten nondik norakoak azaltzeko:

Slave-made pottery and tiny, metal fist amulets are examples of material culture that may contain muted messages of everyday resistance of the sort that are not readily interpretable as signs of resistance (Charles et.al.2001:63).

Ondorio moduan esan dezakegu, azke hamarkadetan lantzen hasi den arloa bada ere, oraindik landu beharreko gai ugari dituela. Gainera, garrantzi handikoak izaten dira indusketa eta ikerketa guzti hauek gizarte horien eguneroko bizitza ulertzeko, nolabait, arkeologiaren berezko definizioan sartzen den ezaugarrietako bat betetzen dutelarik: ahaztutakoen historia kontatzea, historia idatzi eta ofizialetik at.

2.3. KASUEN AUKERAKETA

Ostean erabiliko ditugun adibideak aipaturiko James Scott-en teorian oinarrituz aukeratu ditugu. Erresistentziaren ikuspuntu ezkutu hori kontuan hartuz, eta batez ere, erresistentzia pasiboaren adibide ziren ikerketak erabiliz. Horregatik, Amerika zein Afrikako kasuak aukeratu ditugu, ihes egindako esklabuen, amerikar indigenen edo afrikarren erresistentzia ekintzak eta hauen ikerketak konparatuz. Ikerketa hauetan, normalean europar zurien aurkako erresistentzia mota desberdinak aurkitu ditzakegu, borroka armatuetatik sabotaje nahiz lapurreta ekintzetara.

3. ERABILITAKO KASUEN DESKRIBAPENA

Europar nagusitasuna ardatz moduan harturik, historia liburuetan hainbesteko ohiartzunik ez daukaten erresistentzia prozesuen adibide batzuk azalduko ditugu, hobeto uler dezagun zertan datzan erresistentziaren arkeologia eta nola ematen den gaur egunean. Kontinenteka egingo dugu gure kasuen banaketa. Hasteko, Amerikako kasuak azalduko ditugu, amerikar indigenen kasuak (Txileko Maputxeen kasuan oinarriturik batez ere) eta ihes egindako esklabuen kontakizuna bereiziz. Azken honetan lotura bat osatuko dugu, izan ere Jamaikan egindako ikerketek Ghanako indusketetekin konparaketa bat egiten dute. Honen ondorioz, Ghanako asentamenduak aipatu ostean, Afrikako beste kasua azalduko dugu, Tanzaniako kolonialismo garaiko Majimaji-gudua, tokian tokiko tribuek koloniar alemandarren aurka egindako erresistentzia ekintzak adieraziz. Bi multzo hauek azaldu ostean, haien arteko konparaketa bat osatuko dugu, hasieran erresistentzia esklabuen artean interpretaruz, ondoren *Maroons*-en kasua azalduz, eta azkenik beste erresistentzia moten inguruko hausnarketa bat eginez.

3.1. AMERIKA

3.1.1. TXILE

Maputxeen ikerketa erresistentzia ekintzen arloan ikertu izan da azken hamarkadan, erresistentzia errituekin lotuz batez ere. Maputxe deitura Txile eta Argentinako amerikar indigenen talde desberdin asko izendatzeko erabilia izan da, kulturalki hainbat ezaugarri

berdin dituztelako, desberdintasun handiena haien kokaleku geografikoa delarik (Milesi *et.al.* 2019:3).

Gaur egunean, Maputxeak batez ere Txilen aurkitzen ditugu, nahiz eta historikoki Argentina eta Txileko hego nahiz erdialdeko zonaldeetan bizi izan ziren. 600.000 pertsonetako populazioa osatzen dute, haien gehiengoa Santiago de Txile hiriburuan bizi direlarik (Milesi *et.al.* 2019:3). Haien historian zehar, hainbat enfretamendu izan dituzte botere talde desberdinekin, hasieran Inken inperioaren erasoak biziz, ondorengo Espainiar domeinuarenak bizitzeko.

Konfrontazio eta erresistentzia egoera hauen artean, hainbat toki sakratuetan erritu desberdinak egiten zituzten (2.irudian aurkitzen dugun errepresentazioaren modukoak), haietako askoren ikerketak egin direlarik, ekintza sozial, militar, erlijioso eta politiko moduan garrantzi handikoak baiziren.



2. irudia: maputxeen bilera, erritu bat osatuz (Milesi *et.al.* 2019:5).

Erritu toki hauen eraikuntza asko zabaldu zen XV-XVII.mendeetan zehar, nolabait lotuz garaiko indigenen talde zentralizazio batekin, baina baita kulturaren erakusgai bezala. Indigenen konfederazio, talde handiago horren islada zirela ulertzean eta erresistentzia ekintzekin lotzen badugu, haien lurraldeen defentsan egiten baizituzten horietako zeremonia asko, arkeologiaren papera, erresistentzia ekintzekin loturik beti

ere, garrantzia handikoa izaten da, historia ofizialetik at edota garrantzia nahikorik eman ez zitzaien historiaren arlo horiek ikertzerako orduan. Kasu honetan, erritu eta erlijioaren analisiaren bidez lotu izan dira erresistentzia moduko arlo bat, baina ikusi dugun moduan, arlo desberdinekin lotu dezakegu.

3.1.2. BRASIL

Ihes egindako esklabuen gaian sartuz, erresistentzia mota honen adibide argia Palmareseko kasua izan da, Brasilgo kosta ondoan kokatzen dena. XVII.mendeko ihes egindako esklabuek osatutako asentamendua izan zen. Nahiz eta hasieran hori pentsatu, ez ziren isolaturik bizi, amerikar indigenen asentamenduekin nahiz kolono europarrekin (elitetik at zeudenekin) lotu izan direlarik. 20.000 pertsonetako populazioa osatu zuten osotara, garaiko asentamendu handiekin soilik konparatu daitekena eta, nahiz eta gaiari buruzko interes akademikoak urte gutxi dituen, tokian tokiko errituetan kondaira eta folkloreak bidez, hasierako matxinoen oroitzapena bizirik mantendu izan dute (Charles *et.al.* 2001:68).

Asentamenduaren testuingurua ulertzeko argi izan behar dugu, Brasil, Portugaleko erreinuaren kolonia handiena zela, eta hango ekonomia batez ere, azukre plantazioek osatzen zutela. 1570tik bai afrikarrak bai tokian tokiko indigenak eremu hauetan lan behartuak egin behar izan zuten. XVII.mendean, ihes egindako esklabuek kostatik urrunago zegoen (80 bat km-tara) Palmares asentamendua sortu zen, baso menditsuez inguraturik zegoen zonalde malkartsu batean. Hainbat herrixkek osatzen zuten, horien artean, Macaco, hiriburu moduan ulertuko genukeena. Plantazioetako buruek, kolonietako elitea osatzen zutenek, asentamendua handitzen zihoala, mehatxu moduan hartzen hasi ziren, hainbat kasutan erasotu zutelarik. Hala ere, horrek ez zituen geldiarazi kolonoen eta asentamendukoaren arteko harremanak. Aipatzekoa da ez zela ofizialki onartzen, baina ez zegoen inolaz ere zigorturik. 1694ean Paulistak deituriko kolonoek Macaco hiria suntsitu zuten, hurrengo urteetan Palmareseko boteredun gehienak akabatuz (garaiko errege Zumbi ere hil egin zuten).

Tokian egindako ikerketa arkeologikoak aztertuz, 1990 arte ez zen inolako indusketarik eman Palmaresen, nahiz eta aipamen asko izan dituen gaia izan. Hasierako Macaco hiriaren kokalekua aurkitzeko, tokian tokiko jendearen artean galdetegi bat

osatu zen, azkenean indusketa bat eginez zonaldean zehar. Aurkitutako materialak batez ere, zeramikak eta ontziak izan ziren. Hiru motatako zeramikak banatu ditzazkegu hala ere, asentamenduan zehar: amerikar indigenen zeramika, beiratu gabea zena, europearra, beiratua zegoena, eta azkenik, tokian tokikoena, beiratua zena.

Arkeologiak, kasu honetan, hainbestetan kritikatu izan zen Palmareseko historiaren beste kontakizun bat ematen digu, izan ere, mendeetan zehar, basatien herri edota lan egin nahi ez zuten alferren zonaldea bezala irudikatzen zuten. Baina, aurkitutako materialen bidez, amerikar indigenen eta europear kolonoekin harremanak izan zituztela esan dezakegu, europear kolonoen kasuan, elitetik at zeudenen talde soziala izan zela identifikatu dezakegu, materialen izaera utilitarioa zela eta. Integrazio sozial bat, batez ere indigenen eta ihes egindako esklabuen artean, egon zela adieraz dezakegu, baita lehen aipaturiko elkar trukeak kolonoekin ere.

3.1.3. KARIBE ZONALDEA

Hainbat unibertsitatek bultzaturiko programa desberdinetan, (*University of the West Indies*, aipatzearren, non *Mona Archaeological Research Project*-aren barnean aurkitu ditzazkegu Nanny Town aztarnategiaren indusketa nagusia) erresistentzia prozesu desberdinak ikertu zituzten, arkeologia, etnografia eta aztarna historikoak erabiliz. Ikerketa hauetan, Ghanako Efutu eta Jamaikako Nanny Town eta Accompong aztarnategien arteko konparazio bat egin zuten. Atlantikoaren bi aldeetako errealitateekin (Agorsah,1993:176).

Jamaikako aztarnategiak Ghanako kulturaren¹ jarraipenaren erakusgai dira. Hala ere, aldaketa prozesu bat eman zela ezin da ahaztu. Berritze eta mantentze horiek ez dira aurkako elementuak, Karibeko kulturaren ezaugarri izan dira biak ala biak.


...cultural continuity and innovation are more complementary than has generally been acknowledged (Agorsah,1993:176).

¹ Efutuko erreinuarena, agian esklabu askorentzat Afrikako kontinentearekin zeukaten azken harremana izan zena.

Aldaketa prozesu hori hobeto ulertzeko, inplikazio handiagoa eta jakitunen arteko batasun bat eskatzen du idazleak: kronologikoki gorabeherak aurkitu daitezke Karibeko historian zehar, atal batzuk asko lantzen dira, *Maroons*-en historia, baina, ez da ezagutzen eta alde batera utzi izan da (Agorsah,1993:177). Gainera, genero bidezko ikuspegia ere aipatzen du, izan ere gutxi landu izan den arloa izan da, emakumezkoak atzealde batean utziz, haien lana mespretxatuz, bigarren maila batean ipiniz. Nolabait, Karibean eman izan den kulturaren transformazio horren zantzuak argiak direla adierazten du, kolonen bidaiaren aurretik zein ostean, mosaiko itxurako patroia bat jarraituz:

Archaeological and historical evidence shows the mosaic pattern of cultural transformation in the Caribbean both before and after Columbus. This cultural complexity originates from both sides of the Atlantic (Agorsah,1993:176).

Honetarako, indusketa hauetan, prozesu osoa ikertu izan zuten: esklabuen bidaiak Afrikatik, Ghanako aztarnategiak aztertuz, ondoren egin zuten bidaiak eta Kariben izandako egoera, plantazioetatik ihes egiterako momentuak barnean sartuz.



3. irudia: Jamaikako *Maroons*-ek kontrolatutako zonaldeak (Agorsah,1993:185).

Lan honetan zehar, Karibeko bi indusketa desberdin aipatzen dira (3.irudiaren mapan agertzen direnak): lehenik, Nanny Town, 1992tik ikertua izan dena *University of the West Indies*-aren *Mona Archaeological Research Project*-aren barnean. Asentamenduaren izena, Grand Nanny-ren omenez izan zen, botere handiko emakumea

izan zena, espiritualki nahiz antolatzeko izan zituen gaitasun altuengandik. Autorearen hitzetan:

...she is said to have been an exceptional military, social as well as political leader (Agorsah,1993:185).

Bestetik, Accompong aurkituko genuke. Aztarnategi hau zonalde estrategiko batean kokatuta dago, defenditzeko egokia dena, sarrerak nahiko mugatuak dituelako. Lehendik ezagunak ziren hilobiekin lotzean hasi ziren ondoan zegoen herrixkaren indusketa burutzen. Hala ere, gaur eguneraino egin izan den indusketa txikia izan da.

Indusketetan erabilitako metodologia 2m x 2m-tako bost unitate osatzea izan zen, hilobietatik 12m mendebalderantz zeuden zonaldean. Industutako maila stratigrafikoetatik hiru 1.25m tako zabalera izan zuten, besteek 75cm-takoak izan zutelarik.

Aztarnategien kokalekuen inguruko datuak ere eman izan dituzte, izan ere, Cockpit izenarekin ezagutzen den uhartediko gunerik malkartsuenetako batean dago. Geomorfologia, entomologia eta ornitologia bezalako ezagupen-arloen arabera, parke nazional eta balizko ondare eremu gisa sailkatzen da. Lurreko karst tropikala eta landaretza bakarrarekin batera, Cockpit zonaldean, *Maroons*-ek britainiar armada itxuraz garaitezinari aurre eginez.

Indusketa hauetan, hainbat material aurkitu zituzten arren, garrantzietsuenak erretzeko pipak izan ziren, haien ondorioz kronologia bat osatu baizuten. Pipa berdinak aurkitu daitezkelako Efutuko erreinuan, Afrikako mendebaldean, gaur egungo Ghanan, 1685etik 1881ra, *Nanny Town*-eko aztarnategian bezala.

Hala ere, lehen aipatu bezala, zaila da Ghana eta *Maroons*-en asentamenduen arteko loturak adieraztea, nahiz eta hainbat antzekotasun aurkitu izan diren. Afrikaren diasporaren barneko prozesuak direla argi geratu den arren, oraindik ezin da guztiz ziurtatu Afrikarren jarraipen hori. Nolabait, autore desberdinek kontuz ateratzen dituzte ondorioak, oraindik landu beharreko arloa delako.

3.2. AFRIKA

3.2.1. TANZANIA

Afrikako kasuan, zehazki Tanzaniako erresistentzia prozesuak ulertzeko, Berlineko konferentzian (1884-1885) kokatuko beharko ginateke, non Afrikaren banaketa deritzongun ekintza burutu zen Europako nazioen artean. Alemania, zeinak urte gutxi zeramatzan bateratua, ez zuen Frantziar edota Erresuma batuko inperioek adina kolonia lortu, baina Afrika ekialdeko zonalde bat lortu zuen, haien menpean zeukaten koloniarik handiena, gaur egungo Tanzania osoa nahiz Mafía irla osatzen zutenek. Alemandarrek koloniaren kontrola hartu, kotoi-plantazioak ezarri eta hiru urtetara piztu zen gatazka, 1905-1907an zehazki, ez zutelako inolako ezagutzarik tokian tokiko jendeen kultura edo ohiturekin, eta alemandarren imposizio militarren aurkako hainbat matxinada bizi izan zituztelako (Rushohora, 2015:248).

Askotan, Matumbi taldearen artean lotzen dute gatazkaren hasieran, bi langileek (Ngulumbalyo Mandai eta Lindimyo Machela zehazki), kotoi-landare batzuk erroitik moztu zituztelako, baina berez, askoz ere sakonagoa zen egoera batek bultzatu zituen erresistentzia ekintza desberdinak. Plantazio ekonomia, ez zen batere eraginkorra tokian tokiko herritarrentzat, hortaz gain alemandarren kudeatzeko era gogorra gehitu beharko genuke, orokorrean bertakoentzat inolako onurarik ez zekarren egoera batean aurkitu ziren (Rushohora, 2015:248). Gainera, hasieran soilik tribu bat sartzen bada ere, amaieran 20 tribu baino gehiago aurkitu ditzazkegu ekintzan parte hartzen, haien artean babestuz, etsai komun bat zutelarik. Haien arteko lotura hori erritu eta erlijio bidez handitzen zen. Erritu hauetako bat ur xarmatua litzateke, *Maji* hitzaren berezko definizioa dena Kiswahili hizkuntzan, guduaren berezko izena osatzen duena. Egiten zituzten errituetan, urak alemandarren baletaz defendatuko zituztela pentsatzen zuten, nahiz eta berez ez zuen inolako defentsarik ematen, batze-herramienta moduan bere funtzioa bete zuen.

Arkeologiak gai hau ikertu izan zuen, Tanzaniako historian zehar gutxien landutako atala izan zelako eta, aldaera asko aurkitzen zirelako alemaniako idazkinekin eta 1990. urte osteko Majimaji-ko jakitunen lanekin (Rushohora, 2015:251-252). Nolabait, ahaztutakoen kontakizuna azalera atera nahi izan zen: umeak, emakumeak, ez

gerlariak, kristauak, arabiarak, indiarak... gerraren ondorioz kaltetuak izan ziren gizartearen talde desberdinak baina ondoren historia ofizialean alde batera utzitak izan zirenak.

Hala ere, arlo honek, lehen aipatu dugun moduan, historia ofizialean hainbat aldaera bizi izan ditu: gerraren garaiko alemaniar idazkinak aurkitzen ditugu hasieran, zeinak antikolonialismo gerra bezala irudikatzen zuten egoera, gerra etniko moduan azaltzen zutelarik, kolonialsimoaren defentsa eginez. 1960ko hamarkada ostetik, nazionalisten historia idatzi zen. Haien ustez, gerra alemandarren eskuetatik askatzeko ekintza izan zen, sortu berria zen estatuaren nazionalismoa bultzatzeko helburuarekin, historia bat eraikiz. Nolabait, Majimaji gerra, independentzia gerra moduan ipini izan zuten, nahiz eta ondoren, alde batera utzi (Rushohora, 2015:251). Azkenik, 1990. urte osteko ikuspuntua aurkituko genuke. Aurreko bi ikuspuntuei kritika egin izan zen. Gerraren berezko definizioa eratu zen, berez, faktore askoren multzoa zela defendatuz. Aurreko bi teoria historiografikoez, nolabait faktore zehatz batzuk alde batera utzi zituztela kritikatu (Erljioa, genero gatazkak, medikuntza edota ehiztarien papera).

Arkeologikoki egindako lana, batez ere, gatazka guneetako materialtasuna lantzea eta landa eremuaren inguruko analisi bat osatzea izan da, gutxitan landu izan den arloa baita Afrikako testuinguruan:

Grassroots archaeological projects on sites of colonial battlefield in Africa are rare and striking (Gilchrist 2003, Rushohora,2015an aipatua:254).

Indusketen zonalde geografikoak ondo zehazteko, idatzizko nahiz informazio etnografikoa erabili izan zuten. Azkenean, guda zelaiak ondo zehazteko lau antolatze modu desberdinak zituzten:

Four patterns were identified as the mode of organization of the battles; date of occurrence from the first battle to the last one; the spread of the battle from one ethnic group to the other; spread of maji and the movement of the Majimaji messengers; and the administrative regions as recognized today (Rushohora,2015:255).

Indusketa hauek gaur egungo Tanzaniako estatuaren zortzi administrazio tokietan eman ziren: Kilwa, Lindi Rural eta Urban, Liwale, Masasi, Songea Urban eta Namtumbo. Inkesta batzuk burutu zituzten, hauekin tokiko jendearen informazioa lortuz, berez zeuzkaten idatzizko iturriekin lotzean, aterpe edo babesguneak eta gerraren eraginak ondo ikertu ahal izan zituzten Tanzaniako hegoaldeko paisaian.

Inkestaren ostean, guda gune berri asko mapan ipini ahal ziren, baita babesguneak ere. Ikerketa arkeologikoa berez, bi guda guneetan eman zen, eta kanpoko nahiz tokiko zeramika, eraikitze materialak edota metalezko objektuak aurkitu ziren egindako zundaketetan, Majimaji gudaren kulturaren identifikazio bat eman zelarik (Rushohora,2015:256).

Aurkitutako sekuentzia estratigrafiko luzea izan zela kontuan hartuz, esan dezakegu zonaldea ez zegoela hutsik guda momenturako, antzinagoko garaietatik hainbat jende taldeen pilaketa aurkitu dezakegulako (Paleolito edota hasierako burdin arotik). Gainera, ezagunak ziren mito ugariei erantzun bat eman izan zitzaien. Adibidez, Tanzania hegoaldean pertsona txikiekin topaketak eman zirela kontatzen zen, ikerketen ostean, Paleolitoko kulturekin lotu ahal izan zirenak.

Berez, ikerketa asko ingurunean oinarritu dira, guda guneak, babesguneak edota defentsa sistemak ulertzeko. Guda toki asko defenditzeko errazak dira, adibidez Matumbi, zeina muino baten gainean aurkitzen den, etsaia urrutitik ikusi dezakezularik. Hortaz gain, hainbat haitzulo aurki daitezke, horietako batzuk aterpe edo babesgune moduan erabili izan zirenak (Rushohora,2015:262). Mediku zentru bat ere eraiki da zonalde berean, jendeari zerbitzu horiek emateko funtzioa izango zuena.

Populazio asentamenduak ere ikertu izan dira. Adibide bat aipatzearren Ngarambi, zeinean eroritako etxe baten arrastoak utzitako asentamendu baten aztarnak aurkitu izan ziren. Utzitako asentamendua Kinjekitile Ngwale izenarekin ezagutzen dena, oraindik ere erabiltzen da, erritu funtzioa daukalarik. Berez, ikerketen ostean ez da eraiki inolako oroitaririk, baina toponimia mantendu da, garrantzi handikoa izan dena tokian tokikoentzat.

Egindako indusketetan ere hainbat arma aurkitu dira, gerrarekin lotura argia daukatenak. Afrikar gerlariekin harriak, makilak, labanak, arkuak... lotu izan dira baina baita suzko armak ere (Rushohora,2015:263-264). Hala ere, alemandarrekin konparatuz gero, gutxiengo bat izango lirateke. Alemandarren armak aldiz, suzkoak baino ez ziren. Gerra zelai hauetan, kasu batzuetan, lubakiak ere aurkitu daitezke (Lukuledi, Nyangao, Kibata, Mtumbei eta Namaben), I.mundu gerraren irudi bat ematen dutenak, Majimaji gerrarenak baino. Orokorrean lubaki hauek 10m-takoak dira, muino batekiko paraleloak. Gerraren testuingurua osatzen duten material guzti hauek gaur egunera arte eragina izan dute: lur azpiko balak nahiz bombak mantendu izan dira, gutxira arte heriotzak ere eragin dutenak. Normalean ezjakintasunaren ondorioz, adibide argiena bomba zaharra aurkitu eta metala dela pentsatuz, berotu zuen herramintariaren kasua, tokian lehertu eta hil zena (Rushohora,2015:264).

Generoaren ikuspegia ere landu izan da arkeologiaren bidez, materialen erabileran generoak izan dezakeen eragina ulertu nahiean. Majimaji guduan, gerlari gehienak gizonetzkoak ziren, baina bazeuden salbuespenak, askotan historiatic at utzi dituztenak. Hortaz gain, gerlariak ez zirenak baina garrantzi asko zeukatenak medikuntzaren edota errituen arloan aurkitzen ziren emakumeak egongo lirateke, lehen aipaturiko erritu tokietan edota medikuntza egoitzetan egongo liratekenak. Hortaz gain, espia moduan parte hartu izan zuten, alemandarrek emakumeak gelditzen zituztelarik, haiekiko leialak ziren edota Majimajien aldekoak ziren ikusteko. Espia hauek ondoren, informazio erabilgarria lortzen zutenean mezulari moduan aritzen ziren. Orokorrean, askotan gizonentzat lotu izan diren arloetan gailendu izan ziren gerra testuinguru batean, eta historiagrafia ofizialetik at geratu izan dira.

Historians have explained how women were exchanged as security during the Majimaji war (Monson 1998) and assumed greater authority over fields previously designated as the domain of men (Sunseri 1997, Rushohora,2015ean aipatua:265).

Ondorio moduan esan dezakegu arkeologiaren ikerketan, materialtasuna eta paisaia ikertu izan dela, historiatic at geratu izan diren aspektu desberdinak ikertu ahal izateko helburuarekin. Nolabait, ahozko iturri eta idatzizkoen arteko hutsune hori betetzeko papera izan du, egindako ikerketek kontzientzia nahiz pertzepzio publikoa

eragin dutelarik (Kontuan hartu behar dugu ahozko iturriak gutxi landu izan direla). Esan dezakegu, Majimaji gerraren gudu zelaiek gerraren memoriaren inguruko nondik norakoak eta gizartearen ezaguera gaur egunean ikertzeko aukera eman izan dutela.

4. INTERPRETAZIO KONPARATIBOA

Interpretazioa, arlo zabalagotik zehatzagora burutuko dugu. Hasieran esklabuen erresistentzia azalduz, ondoren Maroons-en kasu zehatzaren nondik norakoak adieraziz eta azkenik erresistentzia ekintza desberdinen hausnarketa batekin lotuz.

Hasteko, azaldu beharra daukagu kasu gehinek prozedura metodologiko bera jarraitzen dutela. Hasieran asentamendu hauek ondo kokatzeko, hainbat metodo erabiltzen dituzten, topografiaren ikerketa (batzuetan hilobiak ezagutzen direlako) edota garaiko tesuak ikuskatu, herrixkei buruzko aipamenak aurkitzeko (Brasilgo kasuan adibidez, non Palmares zonaldea behin baino gehiagotan aipatuta aurkitzen den). Kasu batzuetan aldiz, tokian tokiko herritarrei galdeketak egiten dizkiete, ahoz mantendu diren kondairetan aurkitu daitezkeen datuak biltzeko. Ondo kokatuta izaten dituztenean, zundaketa txikiak burutzen dituzte (Agorsah,1993:187), eta depositoren bat aurkitzen badute, orduan hasiko dira indusketa arkeologikoak egiten. Metodologia orokor hau behin eta berriz errepikatzen da gure kasuetan zehar, nolabait amankomunean aurkitu dezakegun ezaugarri nagusia bihurtuz. Ostean, hasieran azaldutako analisiak burutuko ditugu:

4.1.ESKLABUEN ERRESISTENTZIA

Lanean zehar, askotan ipini ditugu adibide batzuk erresistentzia pasibo edo diskurtso ezkutu horiek adierazteko, baina, gure kasuan, esklabuen erresistentzia ardatz nagusi moduan hartu dugu, ikertu eta konparatu ditugun adibide kolonialak kontuan hartuz. Esklabuen egoera, nahiz eta uste izan menpekoa zela hasieratik, uste baino gorabehera handiagoak izan ditu, esklabotzak osatzen zuen prozesu guztiaren atal bakoitzean, Afrikatik, itsas-bidaietan edota plantazio eremuetara heltzen zireneraino. Borroka aktibo nahiz pasibo honetan oinarritu gara askotan, nahiz eta beste mota batzuetako borrokek ere ikusi, esklabotzarekin zerikusirik ez dutenak.

Aipatzekoa da ikerketa arlo hau Afrikako diaspora² ikertzean zabaldu zela, gero eta gehiago analizatuz, eta, nahiz askotan kolonialismoaren arkeologiaren arloan sartzen bada ere, nolabait kolonialismo garaiko gizartearen ikerketa egiten duten arkeologian. Kasu askotan, azkeneko hamarkadan batez ere, hainbestetan kontaktzen ez zen arlo hori ikertzen hasi da, ihes egindako esklabu, borroka aktibo bat osatu zuten herri desberdintasunen bateratzeak edota haien jabeen aurka egiten zuten plantazioetako esklabuen kasuak kasu. Gainera, azkeneko hamarkadan eman diren eskubide sozialen borroka bultzaturik alde batera utzi izan diren herrien historiak kontaktzen hasi dira bai antropologia nola historia orokorra, erresistentzia ekintzekin zuzenean lotu daitezkenak:

The growing realization by some archaeologists that many of the developing civil rights movements around the world were anchored in traditions of resistance that often had long-standing historical roots (Charles et.al. 2001:62).

Nolabait ondorioztatu dezakegu, esklabotza kolonialaren inguruan ematen ziren ekintza gehinak, eguneroko bizitzan aurkitzen zirela eta gaur egunean, erresistentzia pasibo moduan ulertuko genituzkela: sabotajea, itxurazko gaixotasunak, tresnak nahita kaltetzea, grebak, geldotasunez lan egitea, suteak, intoxikazioak... (Weik,1997:84). Izan ere, esklabotza bera sistema oso bortiza zela, jazarpenak ohikoak zirelarik, eta kasu askotan, lehen aipaturiko diskurtso gorde horretan baino ezin ziren jabeen aurkako ideiak adierazi. Askatasun ezak, erresistentzia ekintzen nondik norakoan eragin zuen, kasu gehienak erresistentzia pasiboak izaten zirelarik, hain zuzen ere lehen aipatutako jazarpenen beldurragatik.

4.2. MAROONS-EN KASUA

Maroon edo ihes egindako esklabuei buruzko ikerketetak lanean zehar aipatu ditugula jakinik, definizio argi bat osatu beharko genuke. Weik-en hitzetan, *Maroons*-ak Afrikako diasporaren barnean aurkitzen ziren pertsona-taldeak lirarteke, eskalbotzatik ihes egin zutenak eta independenteki bizi izan zirenak plantazioetan oinarritzen ziren

²Gaia sakonago lantzeko, kontzeptu honi buruzko hainbat ezaugarri aurkitu daitezke hurrengo entziklopegia sarreran: Zeleza, P. (2021). *African Diaspora*. Encyclopedia.com.

Hurrengo web orrialdean aurkitu daiteke:

<https://www.encyclopedia.com/social-sciences-and-law/anthropology-and-archaeology/human-evolution/african-diaspora>

gizarte kolonialen garaietan. Aipagarria da, gaztelaniaz *Cimarrón* deitura erabiltzen dela, zeinak ihes egindako abereak izendatzeko erabili ohi zen, berriro ere, esklabuak abereekin lotzeko ideia errepikatuz (Weik, 1997:81). Hainbat ezaugarri errepikatzen dira egindako ikerketetan, nahiz eta km askotako distantziak aurkitu haien artean (Brasil edota Jamaika ikusiko ditugulako adibide moduan). Haien artean, asentamendu hauek isolaturik egoten zirela gailentzen da, izan ere, ihes egiten zuten, haien aurka jabe esklabista edota tokiko gobernariak izan zitzaizketen, eta defentsa onena askotan ingurunea bera izaten zen. Honen ondorioz, ohian trinkoetan sarturiko zonaldeetan, edota baso handiko muinoetan aurki ditzazkegu asentamendu hauetako asko. Defentsa sistemak baina, eraiki zitzaizketen, eta, egindako indusketa hauetan, herrietako fortifikazio defentsibo horiek aurkitu daitezke.

Gizarte hauen barnean, prozesu oso bat desberdindu dezakegu, ihes egin ostean, herri nomadak izaten ziren, aurkitzen zail eta defendatzeko gai ziren toki batean geratzen ziren arte, bigarren fasera igarotzen zirenean, herri sedentario modura. Baina, eta isolaturik zeudenaren ideiarenean aurka eginez, inguruko beste herri eta talde etnikoekin lotura gehiago izan zituzten (Charles *et.al.* 2001:64), europar txuri pirata, merkataria edota kolonoekin harremanak izaten zituztelarik, beste talde etnikoekin izaten zituzten loturez gain (kasuetan zehar aipatu direnak).

Maroons-en kasuan, haien erresistentzia kasu nagusiak, zeinak autore askok aipatzen dituzten, plantazio desberdinei egindako erasoak lirateke. Eraso hauetan, herramientak nahiz materialak lapurtzen zituzten, haien herrixketarako behar zituztenak, eta, hortaz gain, beste hainbat esklabu askatzen zituzten. Ekintza hauek erresistentzia aktibo edo errebeldia moduan ikusi ditzazakegu, nahiz eta esklabuen erresistentzian normalean erresistentzia pasiboa ugaritzen den. Ihes egin ostean, lehendik zeukaten beldur eta errepresioaren presioa galtzen zuten, nolabait ekintza argiago nahiz aktiboagoak egitera eramaten zituztenak. Aipaturiko herrien fortifikazioez gain, beste ezaugarri bat aurkitzen diren depositoen antzekotasuna legoke: gehienetan zeramikak aurkitzen dira, forma eta tipologia desberdinetakoak, informazio desberdina ematen dutenak, baita eguneroko bizitzan erabiltzen zituzten tresnak ere (Adibide moduan, erretzeko pipak aurkitu izan dira Jamaikan (Agorsah,1993:181). Zeramika hauek erabili izan dira beste talde etnikoen arteko loturak baieztatuz, uste baino harreman

handiagoa izan zuten gizarteak izan zirela ondorioztatzeko edota kolono txurien erreakzioa (batez ere elitetik at zeudenen artean) uste baino lagunkoiagoa izan zela ulertzeko. Orokorrean esan dezakegu garaiko gizarte konplexua hobeto ulertzeko erabilgarriak izan daitezke aurkitako material depositu hauek.

Indusketak egitean, hainbat informazio desberdin lor dezakete, besteak beste, gizarte hauen harremanak, eguneroko bizitzari buruzko informazioa, hirigintza, erlijio edo errituak, baita beste taldeekiko harremanak ere. Kulturen arteko elkartruke hauek, askotan, lehen aipaturiko zeramikekin ezagutzen ohi dituzte, zeramikak egiteko modu desberdinak aurkitzen direlako indusketa berean zehar. Amerikar indigeneekin gain, europear kolonoekin ere izaten zituzten harremanak, hainbat indusketetan aurkitu direlarik zeramika desberdinak, europear erara eginak. Nahiz eta askotan, herri desberdinetako pertsonen arteko harremana hauek ez zuten inolako gatazkarik pizten, lehen aipatu izan ditugun jabe esklabistek zein garaiko erakunde kolonialek herrixka aske hauen aurkako eraso nahiz errepresioa bultzatu izan zituzten, askotan haien menpeko plantazioetan lapurretak egiten zituztelako, eta era berean, beste esklabu batzuk ateratzen zituzten, mehatxu moduan ikusten zituztelarik. Normalean jabe kolonial hauek militarri gailentzen ziren arren, garaipen batzuk ere izan zituzten *Maroons*-ek osaturiko taldeek (Weik,1997:82).

4.3. HAUSNARKETA OROKORRA

Aurreko kasuak aztertuz, hainbat ondorio atera ditzazkegu. Argiena, esklabotzaren inguruko arloek izaten duten interes maila handiagoa izango litzateke, amerikar indigenen kasuak edota kolonizatzaileen aurkako gerrekin konparatuz gero. *Maroons*-en arloa gehiago ikertu izan den gaia izan da, bai koloniar garaiko gizarteetan, bai erresistentzia ekintzen ikerketetan, afrikar diasporan sarturik edota esklabotzaren ikuspuntutik. 60ko hamarkadatik aurrera eman ziren eskubideen aldeko borrokek bultzatu zituzten ikuspuntu berri hauek, gizarte kolonialetatik kanpo aurkitzen ziren giza-taldeak ikertzeko, non esklabuen egoera landu izan zen batez ere. Plantazioetan bizi izan ziren esklabuetan oinarritu ziren baina, beste arloetako egoerak alde batera utziz. Berrero ere, historiatik kanpo aurkitu ziren hainbat giza-talde. Afrikar diaspora lantzen hasi zenean, afrikanismoak amerikan ikertzean, ihes egindako esklabu eta erresistentzia ekintzak burutzen zituzten esklabuek interes handiagoa sortarazi zuten

akademia munduan. Aldiz, afrikar nazioetan eman ziren kolonizatzaileen kontrako gerrak, Majimaji gudua kasu, ez ziren hain garrantzitsuak akademia mundurako. Kasu honetan argi ikusi dezakegu banaketa geografiko bat, interesaren arabera ematen dena: Ipar-amerikako kasuek interes handiagoa izaten dute, ikerketa gehiago izaten dituzte eta orokorrean, landuagoak egoten dira; Hego-amerikako kasuak, gaiaren arabera egon daitezke desberdinak, indigenen egoera esklabuena baino interes baxuagoa duelarik. Azkenik, Afrikako egoera egongo litzateke, zeinak oihartzun txikia izaten duen, askotan ematen den egoera errepikatuz: europear ondorengo portzentaia handiagoa den gizarteetan, askoz ere ikerketa gehiago ematen dira, beste talde etnikoen gehiengoak dauden tokietan baino. Nolabait, gaur egunean “lehen mundua” bezala ulertzen dugun zonaldeetan askoz gehiago landu izan den gaia izan da, nahiz eta orokorrean europearrek menperaturiko herrialde gehienak “lehen mundu” horretatik kanpo egon.

Historiografia nagusiaren berezko eurozentrismoa alde batera utziz, metodologia antzekoak erabiltzen dituzte kasu gehienetan: inkestak egiten dira tokian tokiko herritarrei asentamenduak egoki kokatu ahal izateko eta informazio gehiago lortzeko, ondoren zundaketak egiten dira, ikusteko zer nolako informazio lor daiteken eta zonaldea egokia dela ziurtatzeko edo ez. Azkenean, indusketak egiten dira, asentamenduaren arabera luzapen desberdina daukatenak (Daukaten inbertsioaren arabera) eta ondorioak ikertu egiten dira. Aipatzekoa da arkeologikoki hainbat aspektu ikertu daitezkeela, hala nola, arkitektura, paisaia, hiria, zentzumenak... eta ikuspuntu anitz guzti horietatik erresistentzia ekintzak ulertu ditzazkegula.

Normalean etnografia, antropologia edota kasu batzuetan genero bidezko ikuspuntua erabiltzen dute ikerketan, gizartearen funtzionamendu osoago bat lortu ahal izateko aurkitutako arrastoak interpretatzean. Multidisziplina honek jakintza sail zabalagoak ikertzeko aukera ematen du, hainbat egoera desberdinetan eman daitezkeelarik horrelako kasuak. Landu daitezkeen gaiak esklabotza, eguneroko bizitza ihes egindako esklaboen bizitokietan, europearrekin izandako harremanak, ekonomia, merkataritza, arkitektura, defentsa-sistemak... izan daitezke, batzuk aipatzearen.

Kasu gehienetan, ondorioetan, gizartearen arlo berri batzuk ulertu izan dira, gizarte konplexuagoak osatuz, garaiko errealitatetik hurbilago uzten gaituztenak.

Maroons-en kasuan, uste baino harreman handiagoak izaten zituzten, bai indigena bai kolono europearrek, zeramika desberdinak aurkitu direlako onartu ahal izan dena. Isolaturik bizi izan zirelaren ideia alde batera utzi ahal izan da, berriro ere, kontakizun ofiziala uste baino simpleagoa izan zela argi utziz. Interpretazio berri hauek, lehen esan bezala, bi egoera hobetzen saiatzen dira: alde batetik historia ofizialetik kanpo geratu ohi izan diren taldeen kontakizuna ezagutzera ematea, eta honi loturik, historia osoago eta errealitatera hurbilago dagoen bat lortzea. Azken batean, historiografiak askotan ikuspuntu bakar batzuk landu izan dituelaren irudia ematen du, gizon txuri europearren historia batez ere landuz. Akademiaren berezko ikuspuntu eurozentriko hori miopia arrazista moduan izendatu izan dute, aurkintzek esklabuei edota afrikarrei buruzko informazioa ematen dutenean alde batera uzten direlako (Schávelzon,2014). Talde honetatik kanpo aurkitzen diren pertsonen egoera aztertuz, askotan testu idatzietan ere aipamenik izaten ez dutenek (arkeologiaren funtzioa areagotuz kasu hauetan, materialtasuna izaten delako haien historiaren arrasto bakarra) antzinako egoerak hobeto ulertzen eta osatzen saiatzen gara.

Archaeology is in an excellent position to study the dynamic interaction between rulers and ruled, focusing on conflicts and social clashes. Historical archaeology can challenge master narratives of power which are often represented in documents, as we have shown in the comparative study of written sources on Palmares and material culture from the archaeological sites. The archaeology of slave resistance and rebellion can play an important role in fostering empowerment and critical awareness (Charles et.al. 2001:69).

Oraindik ere landu beharreko arloak dira hala ere, izan ere, lehen esan dugun moduan, eurozentrismoak pisu handia izaten du historia nahiz arkeologian, eta erresistentzia prozesu gehienak gizarte europear eta honen eraginpean daudenetan zentratzen dira.

5. ONDORIOAK

Erresistentziaren irudi osoago bat lortu izan dugu lana egin ahala. Hainbat bereizgarri ulertu ditugu erresistentzia ekintzen barruan: alde batetik, ez direla beti iraultza armatuak, badaudela erresistentzia ekintza pasiboak, egunez egun egiten

direnak, helburu berarekin, menperatzaileen aurka egitea. Bestetik, boterearen aurkako erantzun moduan ikusi beharko genuke, normalean biolentziaren monopolioa izaten duen erakunde edo talde sozialaren aurka. Hortaz lanaren hasieran sorturiko duda Espainiako guda zibilaren inguruan erantzun genezake: erresistentzia boterearen aurkako ekintza moduan ikusten badugu ondo legoke altxamendu nazionalaren aldekoak erresistentzia moduan ikustea, baina gerrak aurrera egin ahala, botere zentrala lortzen joaten direnez, eta ondorioz biolentziaren kontrol osoa lortzen dutelarik, erresistentzia ekintzetara errepublikaren aldekoak ipiniko genituzke. Gakoa boterearen kontrol horretan legoke, eta ea menperatzaile edo menperatu papera jokatzen duten.

Hala ere, lana burutu ahala, eta informazio gehiago eskuratu genuenean, botere-harremanen nondik norakoak eta hauen garrantzia ulertu izan dugu, gizarteetan zer nolako influentzia izan dezaketen ikusteraino. Kolonialismoaren testuinguruan paper nagusietako bat izan zuten botere-harreman konplexu guzti hauek, eta hauen analisi sakon bat egitea garaiko egoerara hurbiltarazten gaitu. Esan bezala, antzinako gizarteak zatika baino ez ditugu ezagutuko, baina gero eta irudi osoago osatzen lagundu dezakete horrelako ikerketa eta jakintza arloek.

Lanaren inguruko ondorio moduan esan dezakegu erresistentzia ekintzen inguruko arkeologiaren paperak garrantzi handia izan duela historia ofizialetik kanpo aurkitu direnen kontakizunak ezagutzera emateko. Idatzizko testuen monopoliotik kanpo aurkitzen ziren talde guzti hauen eguneroko bizitza eta batez ere boterearen aurkako ekintza horien arrastoak ulertzeko ezinbesteko tresna izan da arkeologia. Gainera, askotan uste izan den erresistentziaren definizioa hobeto zehazten lagundu izan dute ikerketa desberdin hauek, tesuinguru desberdinetan ematen diren egoerak badira ere, hainbat ezaugarri partekatzen baitituzte, gizakiaren berezko jarrera moduan ere ikusi dezakegularik.

Resistance can be considered an inherent trait of human societies, as any change or modification of the living conditions always involves risk. Nevertheless, the desire to maintain certain cultural forms does not mean inaction; quite the opposite, resistance implies an active, dynamic attitude in

which change is present, but is aimed at maintaining life customs and not transforming them (Milesi et.al. 2019:11).

6. BIBLIOGRAFIA

- Agorsah, E.K. (1993). Archaeology and resistance history in the Caribbean. *Afr Archaeol Rev* 11: 175–195.or.
- Casimiro, T., Henriques, J.P., Filipe, V. eta Simões, S. (2020). Mobility and Identities: the Case of the So-Called African Pots from Lisbon (Portugal). *International Journal of Historical Archaeology* 24: 79–94.or.
- Charles, E. Orser, Jr. eta Funari, P.P.A. (2001). Archaeology and slave resistance and rebellion, *World Archaeology*, 33:1, 61-72.or.
- Milesi L. eta Aranda, G. (2019). An Ethnographic and Archaeological Approach to Ritual Practices of Resistance. *Space and Culture*, 1-15.or.
- Miller, D., Rowlands, M., eta Tilley, C. (1995). **Domination and Resistance**. Routledge.
- Rushohora, N. A. (2015). An Archaeological Identity of the Majimaji: Toward an Historical Archaeology of Resistance to German Colonization in Southern Tanzania. *Archaeologies Il.liburukia*, 2: 246–271.or.
- Schávelzon, D. (2014). Arqueología Afro-argentina: un caso de miopía racista en el mundo académico al inicio del siglo veinte. *La Revista de Estudios Panafricanos*, 7.
- Schávelzon, D. (2020). Arquitectura religiosa afroamericana: una producción híbrida en la búsqueda de la identidad. La capilla de San Miguel en Paraná, Argentina. *Arqueología De La Arquitectura*, 17.
- Scott, J. C. (1990). **Los dominados y el arte de la resistencia**. Txalaparta.
- Weik, T. (1997). The archaeology of maroon societies in the Americas: resistance, cultural continuity, and transformation in the African Diaspora. *Historical Archaeology*, 31: 81–92.or.